

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozioa aurrera eramateko, funtsezko baliabide batzuk behar ditugu.

Baliabide fisikoak, hau da, Bilbon gure kokagunea Don Diego Lopez de Haro kalean lokala bat edukiko dugu, gure ekintza guztiak aztertu, ideia berriak garatu eta gure negozioa planifikatuko dugu. Bulegoan altzari moderno eta ergonomikoak izango ditugu, abiadura handiko haririk gabeko Internet, telefono-linea finkoak, gailu eramangarriak eta inprimagailu, eskaner eta fotokopiagailu arruntetarako sarbidea.


Gainera, gure esku izango dituzu administrazio-zerbitzuak (telefono bidezko arreta profesionala, esaterako), posta jaso eta berriz bidaltzea eta harrera-langileak, bisitariei ongietorria emateko. Instalazio komunitan honako hauek sartzen dira: ordukako bilera gelak, kafetera eta tetera duen sukaldea, business lounge eta atseden gune txiki bat. [GURE ENPRESAREN OFIZINA](#).



Beste aldetik, **baliabide intelektualak** izango ditugu, gure kasuan aplikazioen marka da. Gure marka “Voluntary Residence” da. Gure negozioa martxan jartzeko lehenik eta behin merkataritza sozietate batentzat eratzeko tramiteak kontuan hartu behar ditugu. Lehenengoz, OEPM deitutako ofizinarara joan gara gure izena emateko eta horrela ziurtatuko gara inork gure izen bera erabili dezan. Hau erabiltzeko, 792,88€ bitartean ordainduko dugu, patenteak defenturik ez izatean.



Bestea, **giza baliabideak** dira, hau da; behar ditugun langileak. Hasiera batean, gu hasiko gara lana egiten baina negozioa ondo joaten bada, eta diru sarrera nahikoak lortzen baditugu, langileak kontratatuko genituzke. Hau izango lirateke behar ditugun kualitateak.



ANDREA GUTIEZ

LANPOSTUAREN IZENA: ADMINISTRATZAILEA	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: ADE	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Enpresaren inguruan erabakiak hartu	Bulego bat eta bulego materialarekin (karpetak, idazteko materiala...)
Enpresaren ekonomia kontrolatuta izan eta porrot ez egiteko	NetSuite OneWorld aplikazioa, Acumatica software kontabilitateko, DataScope aplikazioa.
Kontabilitateaz arduratu.	HappyFoz salmentetarako

ANDREA AZKUNAGA

LANPOSTUAREN IZENA: Kontularia	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: ADE	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Egoitzek gure aplikazioko kontratazioak kontrolatzea	Bulegoko materialak (karpeta, ordenagailuak...) Ordenagailua eta software ekintzak erregistratzeko
Astero enpresaren ekintzak kontabilizatu.	Ordenagailua Contaplus programa Kontabilitate-legeak

JOANE ABOITIZ

LANPOSTUAREN IZENA: EROSKETAK	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: EROSKETAK-KUDEAKETARAKO ETA ZUZENDARITZAKO MASTERRA	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Aplikazioak sortzeko zerbitzuak jasatea.	Ordenagailu bat excel programa Meet aplikazioa Telefonoa (hornitzaileekin kontaktua izateko)
Prezioen zerbitzu balantzea egin jakiteko zein den errentagarroagoa.	Grafikoak egiteko aplikazioa

ITXASNE LÓPEZ

LANPOSTUAREN IZENA: GIZA BALIABIDEAK	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: GIZA EKINTZEN ETA KUDEAKETA MASTERRA	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Enpresa baten langileak kontratatu, bilatu, organizatu eta motibatzen dau.	Ordenagailu bat (non programa ezberdinak egongo dira deskargatu lana errazteko, adibidez, meet, excel...)
Enpresarentzako langile hobereenak bilatzea eta mantentzearen misioa dauka.	Bulego bat
Enpresa ze langile mota behar dauan ezartzea.	Sare sozialak (jendea enpresa ezagutzeko) e-learning plataformak (ikastaro batzuk formatuagoal egoteko, hala nola, Coursera, EDX...) Gamifikazio tresnak (jende motibatuta mantentzeko, hala nola, Bigdoor, Gamify)

NEREA FERNÁNDEZ

LANPOSTUAREN IZENA: marketing eta publizitatea eramatea	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: marketing eta publizitatea //publizitatea eta harreman publikoak	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Kartelak edo gure enpresa promozionatzeko arduraduna naiz. Sare Sozietateak kontrolatu gure enpresa promozionatu ahal izateko.	Ordenagailu bat izatea gure enpresa komunikatzeko baliabideak: <ul style="list-style-type: none"> - email bat - telefono bat izatea - Bilerak egiteko gela bat - Wifi on bat izatea
Egoitzak gure zerbitzuak jakinarazteko hitzaldiak antolatu	Bulego bat izatea, hori lantzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Mahai bat - Aulkiak - ordenagailua
Publizitateko kanpainak egitea	Residentzietako kontaktuak izan

LANGILEAK

LANPOSTUAREN IZENA: helduekin egotea eta aktibitate desberdinak egitea	
ESKATUTAKO TITULU AKADEMIKOA: Erizaintzako laguntzailea/ aisialdirako monitorea	
EGINKIZUNAK	BEHAR DIREN BALIABIDEAK
Pertsona helduekin jolastea, jaten eta garbitzen laguntzea, haiekin denbora pasatzea	Erresidenteetan leku bat (gela bat) izatea aktibitate desberdinak egiteko.
Familiarekin kontaktuan egotea, ea nola hobetzen duen nagusien egoera.	familiaren kontaktuak izan.
	Jarrera on bat izatea helduei laguntzeko problema bat izatekotan.

Azkenik, **finantza baliabideak** ditugu. Irabaziko dugun diruarekin, gastuak aurrera eramango ditugu. Urte batean irabaziko dugun Kalkulua egin dugu eta gutxi gorabehera 14400€ izan da emaitza. Emaitza horretara heltzeko, gehitu dugu unibertsitateak eta egoitzak ordaindu behar izango dutena (**300€ egoitzak eta 900€ unibertsitateak**) kantitate hori bider hamabi egitean, guk kobratuko dugun urteko dirua agertzen da. Ekuazioa hau da;
 $(300 \cdot 12) + (900 \cdot 12) = 14400€$